



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-06-11**

VII. URTEA 1.725. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Orden geometriko formala, organikoa eta kromatikoa ditu oinarri Ruiz de Aguinok. E. EZBIZA

ESKULTURA, PAPERA ETA PINTURA OINARRI

TOLOSA Aranburun Iñaki Ruiz de Aguiño artista donostiarraren lanak biltzen dituen 'Materia eta espazioa' izeneko erakusketa ikusgai da 5

Bedaioko III. Mendi Martxa eta BTT Martxa antolatu dituzte iganderako

BEDAIO Artubi elkarteak antolatuta, «Bedaio hobeto ezagutzeko aukera» emango dute martxek; ibilbidea zertxobait aldatu dute aurtengorako 3



Garazi Egigurenek hirugarren aldiz jarraian lortu du garaipena. HITZA

Garazi Egiguren gimnastika erritmikoko irabazle Euskadikoan

IBARRA Onintza Odriozolak ere lehen postua lortu du kadete B mailan; Belabietakoak, «pozik» 6

**Herritarrek
HITZA doan
jasotzeko aukera
izango dute
berriro**

ADUNA Herriko sei gunetan aleak eskuratu ahal izango dituzte 4


**I. Erremonte
Koparen
partida bat
jokatuko dute
pilotalekuan**

IRURA Etzi izango da final-laurdena: Matxin III-San Migel eta Urteaga-Ugarte 4

Nafarroa hiribidea 6, 2.
20400 - Tolosa
943 65 35 90




ehnelur
euskal herriko nekazarren elkartasuna



Sutea, kazkabarra, tximista,
animaliek eragindako kalteak...

**Baserria ondo babestuta
al daukazu?**

- Baserri-rako aseguru berezia preziorik onenean
- Baserriko aseguru-etan adituak

aseguruenak / berriro sortzen 

74 urte bete ziren atzo Alkoholiko Anonimoak sortu zirenetik; egun, ia mundu osoan zehar dute ordezkariak: Tolosan Uzturre eta Urdina taldeak daude, 25 eta 40 kideekin, hurrenez hurren.

Eguneroko erronka

INIGO TERRADILLOS

Atzo bete ziren 74 urte Alkoholiko Anonimoen elkartea sortu zenetik. Ameriketako Estatu Batuetan izan zuen sorrera. Bill Wilson-ek eta Robert Smith-ek arazoak zituzten alkoholarekin, eta elkarri hasi ziren euren esperientziak kontatzeko. Medikuntzaren bidez ez zuten gaitza sendatzea lortu, baina pixkanaka konturatu ziren onura handiak zituela arazoei buruz hitz egiteak, eta jendeari terapia horren berri ematea erabaki zuten. Horrela osatu zuten gaur egun ia munduko lurralde guztietan ordezkariak duen elkartea.

Urteurrenaren aitzakian, herenegun Gipuzkoa mailako festa antolatuta zuten Lasarten, eta bertan izan zuten Tolosako bi taldeetako kideak ere. Uzturre eta Urdina dira Alkoholiko Anonimoen baitako

Tolosako taldeak. Uzturre taldekoek Sakramentinoetan dute egoitza, eta 25 kide inguru biltzen dira egun. Urdina taldekoak, berriz, Plaza Berriko lehenengo zenbakian daude, eta 40 kide inguruk osatzen dute. Alkoholarekin arazoak duten herritar guztientzat zabalik dituzte euren ateak, eta telefono zenbaki bat ere badute beharrik duten guztiak artatzeko: 943 24 8474.

Lehen pausoa: onartzea

Uzturre taldeko kideek azaldu bezala, «alkoholarekin arazoak dutentzat edozein arazo da ona edateko, eta puntu horretara iristen zarenetik ez dago atzera bueltarik». Medikuntzak sendatu ezin dezakeen gaitza da, eta hor sartzen da Alkoholiko Anonimoen egitekoa. «Ez gara profesionalek osaturiko talde bat, arazo bera dugun ki-



Sakramentinoetan dute egoitza Uzturreko taldekoek. I.T.

deez osaturikoak baizik, eta hain zuzen ere, horretan datza taldeko terapia hauen arrakastaren funtsa; izan ere, arazo bera dugun kideon artean hobe ulertzen dugu elkar».

Ez da erraza izaten, ordea, lehen pauso hori ematea, duzun arazo hori onartzea eta Alkoholiko Anonimoetara jotzea, alegia. «Norberari ezezik, inguruko 10 bat laguni eragiten dio zure gaitzak, eta azkenean konturatzeko zara familian izaten ari den ondorioz, laguntza ematen, eta baita lanean ere; hala, zure bizitzaren egoeraz jabetuta, taldera jotzen duzu laguntza eske».

Uzturreko kideek aipatzen duten bezala, «kide berri bat bilerara joaten denean, kide hori izaten da garrantzitsua egun horretan,

babestuta dagoela sentiarazten dugu, eta ikusarazten diogu ez dela arazo hori duen bakarra, eta irtenbidea dagoela; lasaitasuna, konfiantza eta maitasuna transmititzen diogu, eta horrela, lehenengo bileratik, nolabait aurrera egiteko indartuta ateratzen dira».

Eguneroko erronka

Elkarri norbere arazoak kontatzea da bilera hauen egiteko nagusia, «barruan duzuna kanporatzea». Bestalde, ez dituzte epe luzerako erronkak jartzen: «egunari begiratu diogu, hau da, erronka beste egun bat edan gabe igarotzea da. Gure ustez, arriskutsuagoa izan daiteke epe luzera begira jartzea, izan ere, esaterako, bi hilabete edan gabe igaroko dituzela esan

diezaiokezu zure buruari, eta bi hilabete horiek igarotzean arazoak gaitzitu duzula pentsa dezakezu, eta berriro erori eta edaten hasi. Horregatik uste dugu hobe dela egunez egun joatea».

Halaber, askatasunez jokatzeko dute elkartean biltzen direnek, hau da, «ez dago inolako kontrolirik; ez gara jendearen atzetik joaten ea edaten duten edo ez ikustera, euren borondatez sartzen baitira taldean, eta nahi dutelako eta beneatzen euren buruan sinesten dutelako egin behar dute aurrera».

Araozak duten guztiei irekia

Era eta adin guztietako jendea dago taldean, azken urteetan gazteen artean gorakada nabaritu delarik, «baina taldearentzat guztiak berdina dira». Uzturrekoen kasuan, asteartean eta ostegunetan biltzen dira Sakramentinoetako egoitzan. «Duela hiru aste hasi ginen asteartean ere biltzen, behar hori ikusi baikenuen».

Taldeko kideek alkoholarekin arazoak duten guztiei beraiegi laguntzeko daudela azaldu nahi diete. «Araozak duen pertsona horri babesa eta laguntza ematea da gure helburua, eta horrela elkarren artean hitz egitearen ondorioz pixkanaka bere buruarekin eta alboarekin ondo sentiaraztea. Horregatik, arazoak dutenak etor daitezela lasaitasun osoz gugana esan nahi diegu».

Ikasitakoarekin jendaurrera

Kultura » Dantza tailerren ikasitakoarekin jendaurrera bukatu da emanaldia izango da larunbatean, Leidor aretoan.

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, 18:00etatik aurrera, dantza tailerren ikasitakoarekin jendaurrera bukatu da emanaldia izango da Leidor aretoan. Urtero bezala, beraz, ikasitakoarekin zehar ikasi dituen erakusteko unea iritsi zaie ikasleei.

Manex Urruzolak aurkezturiko saioan, Ana Irazusta (Dantza Garaikidea), Katixa Perea (Baleta, Puntak) eta Itziar Urruzola (Bale-



150 ikasle inguru ariko dira Leidorreko eszenatokian. HITZA

ta, Puntak) irakasleen ikasleak ariko dira eta Katixa Perea izango da emanaldiaren zuzendaria. *Intxaur kraskagailua* da emanaldiaren izenburua.

Baleta eta dantza garaikideko 150 ikasle inguru taula gainean ikusteko aukera izango da, beraz, ikuskizun berezia eskainiko dute guztien artean.

@ Zurea da hitza. Eskualdeari

buruzko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak *Zurea da hitza* izeneko atalean. Behin atalean sartuta, berria sartu, eta datuak idatzi besterik ez duzu egin behar. Nahi izanez gero, gainera, argazkia sartzeko aukera ere baduzu. Berriak sartzeko gain, iritziak, eskertzak, iradokizunak, kexak... sartzeko aukera ere baduzu. Atal honetan sartzen diren berriak eta iritziak euren argazkiekin, papereko edizioan kaleratuko ditugu ostialdero:

www.tolosaldekohitza.info

Gutunak

Ipar Euskal Herrian AHTren proiektua gelditua

AHT Gelditu! Elkarlanarentzat, Frantziako Gobernuak hartu duen erabakiak ez du soilik aurkakotasun arrazoituaren eta herri mobilizazioaren bidez AHT gelditzea posible dela frogatzen, egoera berri hori Eusko Jaurlaritzaren jarraitzearekin erabat kontrajarrian baitago, azkenak AHTren eraikitzearekin jarraitzearen asmoa baitu ordaindu beharreko prezioa edozein izanik ere eta beste edozein alde ekonomiko, sozial eta ekologikoren gainetik.

Egoera horrek, gainera, euskal Yarengaineko itzal etagaldereberriak sortzen ditu:

- Euskal Ya Europarekin Abiadura Handiko konexiorik gabe geratu da.

- Bigarrenik, Gobernu Frantzesaren erabakia indartzen duen egiaztapena AHTk merkantzia-garraioaren arazoak ez duela konpontzen izan da.

- Ez litzateke ahaztu behar, Frantziako Kontu Auzitegiko txostenek, Abiadura Handiko proiektuen errentagarritasun sozio-ekonomikoaren tasa gogor jaisten ari direla adierazi dutela, eta beraz trenbide konbentziona-

leko sarea hobetzearen aldeko apustua egitea gomendatzen dutela.

AHT Gelditu! Elkarlanaren ingurumenaren alde diharduten elkarrekin koordinazioa (CADE) zoondu nahi du Frantziako Estatuak inposatu nahi zuten Abiadura Handiko trenbide berriaren inguruan aurkakotasun zabalari bide eman baitio Lapurdin inoiz ikusi ez den mobilizazio-mailarekin.

Tolosaldean obrak dagoeneko hasita egon beharko lukete aurrerantzi zeneren arabera baina oraindik Proiektu Basikoarekin besterik ez daude. Era berean, ez dituzte oraindik sondeo guztiak egin. Egoera ikusirik, lanean jarraitu behar dugu AHTri aurka eginez, Ipar Euskal Herrian bizi zaren ari diren bizitzeko.

Horregatik guztiatik, AHT Gelditu! Elkarlanak, beste behin, euskal Yaren lanak gelditu, gogoe-ta abian jarri eta AHTren inguruko gatazkari arrazionaltasuna emateko aukera gal ez dezan eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari.

Halaber, proiektu txikitzaile eta xahutzaile hau gelditzeko borroka indartzerai dei egiten dugu, datorren ekainaren 13an, larunbata, Itsasondo-Ordizia, Bilbo eta Arrasaten egingo diren manifestazioetan parte hartuz.

AHT Gelditu! Elkarlan.

Iriarte jatetxea

Asteartetik igandera

afaritarako terraza zerbitzua

irekitzen dugu!

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

Bedaioko III. Mendi Martxa eta BTT Martxa igandean, «Bedaio hobe ezagutzeko»

Bedaio » Aurten bidea zertxobait aldatu badute ere, aurreko urteetan bezain polita izango dela adierazi dute Artubikoek.

ERREDAKZIOA

Aurreko urteen arrakastari jarraituz eta nahiz eta krisi garaian egon, Bedaioko Artubi Elkarteak Bedaioko III. Mendi eta BTT martxari eutsi nahi dio, eta horretarako lagun izan dituen enpresa guztietik eskerrak eman nahi dizkie aurretik. Hiru urte hauetan egin bezala, lehenengo helburua Bedaioko inguruak ezagutzeko eta bertan gozatzeko da.

07:30ean aterako dira oinezkoak eta 08:30ean txirrindulariak. Gero, bakoitzak ibilbide desberdina egingo du: oinezkoek mendi tontorrek ere igo beharko dituzte.

Bedaiotik hasita Artugibinara igo eta ondoren Bedaioko bailararri buelta emango zaio. Beraz, zertxobait aldatu dute bidea, «hasiera hobe eta ederragoa» eman nahi izan diotelako. Zozketak eta otarteak ere izango dira.

Natura eta inguruak eskaintzen dituen ikuspegiak gozatzeko goiz ederra igarotzeko proposamena da. Nola ez, eta Bedaion izanik, zozketak eta otarteak izango dira martxaren bukaeran.

Izena emateko mendimartxa@bedaio.com edo www.bedaio.com edo www.bedaio.com webguneetan egin daiteke eta nahi izanez gero baita egun berberean proba hasi eta ordu erdi lehenagora ere.

Badago zer eginik eta zertan parte hartu Bedaio aldean. Antola-



Bizikletarekin 35 lagun animatu ziren iaz; gero bizikleta garbitzeko aukera izan zuten. Eskuinean, frontoian prestatutako postu bat. HITZA



tzaileek hiru urte daramatzate mendi ibilaldia prestatzen eta aurreko ere, «ilusio handiz» artatuko dituzte gerturatzen direnak. Iaz, esaterako, 102 lagunek egin zuten oinezkoa eta bizikletan 35ek. Honi Bedaioa festa girora hurbiltzen diren lagunak gehitu behar zaio.

Igandeko arauak

Bedaioko III. Mendi Martxa eta III. Mendi Bizikleta Ibilaldia igandean izango dira. Oinezkoek zein bizikletaz doazenez bide desberdina egingo dute.

Izena emateko orduan, parte hartu behar dutenen izena, bi abizenak, herria eta oinez ala bizikletaz atera behar duten adierazi behar da. Horrela, antolatzaileek errazago egingo dute lan.

Federatuek eta ez federatuek parte har dezakete mendi martxan. Ibilbideko kontrol guztietan sinadura eta ordua jasoko dituzte, mendi martxa neurtua baita. Txartel bat banatuko dute (10 euro) eta bukaerara arte gorde

» DATUAK

- **Eguna.** Ekainak 14, igandea.
- **Mota.** Mendi Martxa oinezkoentzat (neurtua) eta BTT Martxa.
- **Hasiera-amaiera.** Bedaioko frontoian.
- **Prezioa.** 10 euro.
- **Irteera ordua.** 07:30ean oinezkoak, 08:30ean bizikletakoak.
- **Denborak.** Mendi martxarako 6-8 ordu. Bizikletaz 3-4 ordu.
- **Antolatzailea.** Artubi elkartea.
- **Izena emateko bideak.** Proba hasi baino ordu erdi lehenago edo www.bedaio.com-en eta mendimartxa@bedaio.com-en.

egin behar da, zozketa batean parte hartzeko eta zerbait jateko baliabaitu.

Bukaerako kontrola 17:00etan bukatuko da. Zer esanik ez, zakarrak kontrol guneetan bota behar dira, ingurua errespetatu behar baita eta topatu bezala utzi. Animailiak eta landaretzaz gozatzeko, bakean utzi behar dira ere.



Ibilaldia plazan hasten da, Bedaioko goiko aldean. I. TERRADILLOS

Bedaiori buruzko gida, jada edozeinen eskura

ERREDAKZIOA

Bedaion Tolosaldeko Turismo bulegoaren laguntzaz, turismo gida berria dute. Gida honetan Tolosako auzo honetako dituen txoko politen eta puntu interesgarrien berri ematen du, besteak beste. Bedaioko historia, pertsonaiak, *Ingurutxo*, eta bestelako kontuak biltzen ditu. Gainera, Aralarko parke naturalaren sarrera bat dagoenez bertan, bisitariak egin ditzaketen ibilaldiak, ikus ditzaketen paraje ederren hainbat datu ematen ditu.


Bedaiotarrak «gustura» daude gidarekin «Bedaio bisitariarentzat dituen baliabideak biltzen dituelako. Uste dugu lan polita egin dugula, auzoak gauza asko baititu erakusteko». Izan ere, urte batzuk daramatzate bedaiotarrak euren txoko eta paraje ederrak ezagutzera emateko bidea zabaltzen.

Aralarko Malloen magalean dago Bedaio, Balerdi mendiaren azpian. Berezitasunen artean, Tolosako hirigunetik bertaraino dagoen distantzia da, 16 kilometro, hain juxtu. Horregatik, herri izatera dauka ia. Nafarroarekin muga egiten du mendialdetik (Araitz

bailara dago beste aldean). Erdi Aroan, kostaldearen eta barrualdearen artean salerosketan jarduteko galtzada garrantzitsua igarotzen da handik.

Beste bitxikeria askoren artean, Gipuzkoako baserririk handiena dago Bedaion, Gurbillaundia: kartzela funtzioa betetzeko eraikia izan zen.

Baina Bedaiok harro sentitzeko aitzakia baldin badu, paisaia eta inguruarengatik ere bada: gainera, Aralarko Parke Naturalaren sarrera puntu bat da. Gida hau Tolosaldea Tourren lor daiteke, edo Artubi elkartearen.



Presen Urkizurekin ardoez ikasteko aukera etzi

Albiztur » Berastegiko ardo-dastatzaileak ardoari buruzko hainbat azalpen emango ditu, Kultur Asteari bukaera emanez.

ERREDAKZIOA

Albizturko herritarrek asteburu honetan ardoak dastatzeko ikasteko aukera izango dute. Izan ere, Kultur Asteari bukaera emateko, Presen Urkizu berastegiarrak ardoak bereizten ikasteko hainbat arau emango ditu.

Berastegiko sommelier profesionalak hainbat sari ere jaso izan



Euskal Herrian ardoa edateko ohitura dago: ona den, hori ez dakigu. N. URBIZU

ditu, esaterako Urrezko Sudurra eskuratu zuen 2005ean. Epailea izan da ere askotan. Etzi 19:00etan, Arkaitz elkartearen izango da. Pintxoekin batera, ardo ezberdinak dastatzeko aukera ere izango da beraz.

Pintxo beroak zein hotzak izango dira Arkaitz elkartearen. Ardoi dagokionez, ardo-dastatzaileak berak aukeraturakoak izango dira. Pintxoekin batera, ardo hauek dastatzeko aukera izango da.

Ardoa, jakiekin hartzekoa

Presen Urkizuk ardoak dastatzeko gain sagardoak dastatzeko ere badaki. Ardo eta sagardo hauek dastatzeko zergatia honakoa da

gehienetan: edan behar duenari aholkatzeko. Sommelierrek jakien araberako aukeraketa egiten dute, era objektibo batean egiten dute, zeinena den kontuan izan gabe. Izan ere, ardo on bat izatea ez da nahikoa, ez baita berdina arrain batekin har daitekeen ardo, haragi batekin edota tabernan hartzekoa.

Albizturren ardoez ariko da berastegiarrak. Hainbat aholku emango ditu produktu preziazatu honen inguruan.

Honenbestez, ekitaldi hau Albizturko Kultur Asteko azken ekitaldia izango da. Bukaera berezia eman nahi izan diote aurtengo egitarauari.

HITZA doan jasotzeko aukera dute berriro herritarrek

Aduna » Herriko sei lekutan buzoiak jarrita daude bertatik aleak hartzeko; Udalak euskaraz irakurtzera animatzen du.

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK egindako hitzarmenaren ondorioz, berriro Adunako herritar guztiak eskualdeko euskarazko egunkaria jaso ahal izando dute, doan, herrian sakabanatuta dauden buzoietan. Apakintzako bidegurutzean, Zubitxikin Lardirako bidean, Elutsen Goibururako bidean, Uztartza ondoko biribilgunean, Olazabalaurrean eta Lizarreka ondoan Azpikotako bidegurutzean dira buzoiak dauden lekuak. Asteartetik ostiralera toki horietan egongo dira, eta larunbatetan eta igandeetan, berriz, Uztartzako biribilguneko buzoian bakarrik.

Udalak azaldu duenez, «Aduna oso herri euskalduna denez (%91,83 euskaldunak 2001ko datuen arabera), oso garrantzitsua iruditzen zaigu euskarazko komunikabideak bultzatzea eta herritar guztioi eguneroko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera ematea». UEMAREN helburu nagusietako bat hori dela gogoratzen du



Uztartzaren ondoko biribilgunean egunkaria jasotzeko dagoen buzoia. I. G.

Udalak: «Udalerrri euskaldunen garapen sozioekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea». Euskara nagusi izango den lurruna osatzea da beste helburu bat, eta Tolosaldea bera ere oso euskalduna denez, garrantzi handia ematen diote eskualdeko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera izateari.

Aurrera begira ere udaletxeko hainbat deialdi, informazio eta beste HITZAREN bidez bideratu

nahi dituzte etxeetara. «Hau horrela izanik herritarrei ere ahaleginak egitea eskertuko genuke», gaineratu dute Udaletik, «egunerokotasunean HITZA jaso eta irakurtzea gure hizkuntzaren osasunerako ona izango delakoa».

«HITZAK euskaldunago egiten gaituelako», egunkaria buzoietatik jaso eta irakurtzeko deia luzatzen du Adunako Udalak.

Gutunak

Daukagun urarekin nahikoa dugu

Hernialdeko herritar batzuk gara. *El Diario Vascon*, ekainaren 6an azaldu zen albistea irakurri eta gero, ondorengoa esan nahiko genuke:

Ez dugu epaituko beharrezkoa den ala ez Ibiuritik ura eramatea Tolosaldeko 13 udalerritarra eta ulertzen dugu badaudela udalerririak ez dutenak iturburu eta azpiegitura nahiko bere ur beharrak betetzeko. Baina Hernialderen zatitza, Tolosaldeko udalerrria, ez da beharrezkoa, kontuan hartuta Tolosak eta Anoetak kontsumitzen duten parte bat Hernialdeko iturburuetatik jasotzen dutela.

Hernialdek ez du Ibiuritik etorri dakiokeen urrik behar, azaldu dugun bezala, nahikoa dugulako dugunarekin. Gainera, ustiapena hobetu daiteke, ur-ihesa ekidinez, eta oraingoz ez dugu murrizketarik.

Tolosak eta Anoetak Hernialde-tik jasotzen duten urak Hernialderen tamainako hamar udalerrri laisai asko hornitu ditzake. Beraz, Tolosak eta Anoetak erabakitzen badute ura urtegitik jasotzea, guk ez dugu beharrik ura jasotzeko.

Bestalde, esan beharra dugu izugarrikeria iruditzen zaigula ura edateko ponpatu behar izatea, horrek suposatzen duen gastuarekin. Eta ur-ponpak huts egiten duenean? Ibaiara joan behar dugu ura-

ren bila? Ponpatzeak suposatzen duen gastu ekonomikoa beste helburu batzuetara bideratu daiteke.

Zertan gastatzen da zergadunaren dirua?... Behar denean edo behar ez denean?

Bilera batera deitu zitzaigun herritarrei Ibiurten urari buruz, eta bertan esan zitzaigun Ibiurteko ura jasotzera inposatu eta behar-tzen zigitela. Kontsumitzen genuen ura ez zela edangarria esan zitzaigun. Guk ez dugu bat egiten iritzirik horrekin. Hidraulikas Ovie-dotik etorri zen tekniko ikuskatzaile bat udalerrietako uren kalitateaz begiztatzea eta oso garbi esan zuen Hernialdeko urak gardenak zirela, eta gainera, kloro beharrik ez zuela, hau da, kalitate bikainekoa.

Iturburuetako urarekin zer egingo zen galdetuzean, zuzenean ibaira joango zela esan zuten. Orain urtegitiko ura eraranazi nahi digute. Hain justu, udalerririk honetan zerbaiteaz harro bagaude gure uraren kalitateaz da, ponpatu gabe aprobexatu dezakeguna.

Gure aldetik kontrako jarrera gogorra izango da eta obra horren kontra gaude gure urarekin aski dugulako eta gure burua hornitze-ko gai garelako.

13 zenbakia zerbitu txarrari lotu ohi da. Bada, ahaztu daitezela gut-za, eta 12 izango da.

Joze Ugarte mendia eta beste lau herritar. Hernialde.

I. Erremonte Koparen partida bat jokatu dute herriko frontoian

Irura » Etzi izango da eta txapelketako final-laurdena izango da; Matxin III.a eta San Migel, Urteaga eta Ugarte ariko dira.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2009ko Saria I. Erremonte Kopa jokatzeko ari dira egun hauetan Gipuzkoako hainbat herritan. Etzi,

hilaren 13an, Irurako pilotalekuan jokatu den erremonte jaialdiaren bigarren partida txapelketa horretako final-laurdenetako bati dagokiona da, Matxin III.ak eta San Migelek Urteagaren eta Ugarteren aurka jokatu dutena, hain zuzen ere.

Aurretik, ordea, 22:00etan Matxin VI.ak eta Agirrezabalak Etxabe II.aren eta Aizpurua II.aren aurka jokatu dute lehenengo partidari. Sarrerak 5 eurotan jarri-

ko dituzte salgai 21:30ean Irurako frontoian bertan. Aurretik erosi nahi duenak, Irurako Zaharren Biltzikotako tabernan edo Opil dendan izango du aukera. Irurako Udalak jakinarazi duenez, 12 urte edo gutxiagokoek sarrera doan izango dute.

Informazio gehiago nahi duenak Irurako Udalerria dei dezake, 943 69 13 33 zenbakira, edo www.remonteberrri.com webgunean sartu.

Laburrak

Goiza Pasa udalekuan izena emateko aukera

IRURA » Goiza Pasa udaleku irekiak antolatu ditu Udalak haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako haur-errentzat. Udalekuak ekainaren 29an hasi eta uztailaren 30ean bukatuko dira. Goizero 10:00etatik 13:00etara bitartean, herriko eta inguruko herrietako jolasleku eta mendiak bisitatu ahal izango dira, eskulanetan trebatu eta beste hainbat ekintza ondo pasatzeko begiraleen laguntzarekin. Izena emateko epea bihar bukatzen da eta Udaleko kultura bulegoan egin behar da 14:30ak baino lehenago.

Oreka akrobatikoak eta trapezio bikoitza tailerrak

ADUNA » Asvineneak tailer trinkoak antolatu ditu oreka akrobatikoak eta trapezio bikoitzaren inguruan. Asvin Lopez, Ruth Gascon, Wanja Kahlert eta Famara Pardo izango dira irakasleak. Rogelio Rivel zirko eskolan jaso dute formazioa, Brasilen ikasiz eta lana eginez. Hilaren 26tik 30era bitartean izango dira tailerrak. Parte-hartzaileen kopurua mugatua izango da eta izena emateko azken eguna hilaren 20a izango da. Informazio gehiago nahi duenak 667 223 236 telefono zenbakira dei dezake.

ANOETAKO Udala

AHT gelditu!

EUSKAL PRESOAK

EUSKAL HERRIRA

Ondo pasa Korputsetan!!

Laburrak

Futbolean jolastu nahi duten gaztetxoei deialdia

FUTBOLA • Tolosa CFk deialdi berezi bat luzatzen die 1994-1995 urteetan jaioteko mutilei, eta futbola gustuko dutenei. Kamiseta urdina-rekin jolastu nahi badute, eta taldeko kide izan, Usabal kiroldegira joan beharko dute bihar 18:30ean. Klubekoek azaldutakoaren arabe-ra, entrenamenduko arropa eraman behar dute.

'La condesa descalza' filma ikusgai izango da gaur

KULTURA • Gaur, Zine-forumean Joseph L. Mankiewicz-en *La condesa descalza* filma izango da ikusgai, jatorrizko bertsoan. Bi saio izango dira, lehendabizikoa 19:15ean eta bigarrena 21:45ean. Ava Gardner, Humphrey Bogart, Edmond O'Brien eta Elizabeth Sellars dira 1954. urteko film honetako protagonistak. Ava Gardner dantzari espainiar bat da, Maria Vargas. Hau flamenko dantzari izatetik, Hollywood-eko eszenatokitako izar izatera igarotzen da. Hala, gizon guztiak bere atzetik eduki arren, ez du zioritasuna lortzen.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Ruiz de Aguinoren eskultura batzuk kalean aurki daitezke. E. EZEIZA



Pintura, eskultura eta paperaren gainean egindako obrak bildu ditu. E. EZEIZA



Orden geometriko formala, organikoa eta kromatikoa ditu oinarri. E. E.

Eskultura, pintura eta beste

Artea » Iñaki Ruiz de Aguinoren eskultore, margolari eta grabatzailearen lanak ikusgai daude Aranburu Jauregian, 'Materia eta espazioa' bilduman.

ERREDAKZIOA

Eskultura, pintura eta paperaren gaineko obrak uztartzen ditu Iñaki Ruiz de Aguinoren azken bildumak. *Materia eta espazioa* izenburupean, donostiarraren hiru alde batzen dira Aranburu jauregian. Erakusketa ikusgai izango da hilaren 27ra arte. Interesatuak 17:30etik 20:30era bitartean bisitatu ahal izango dute aretoa.

Eguinoren lanak oinarri ditu orden geometriko formala, organikoa eta kromatikoa. Eskulturaren, bere ikerkuntza espazioaren bateraketan zentratzen da. Hiru dimentsiotako formak bat eginez eta beraien artean ordena, erritmoa eta espazioen arteko harremana jartzen duten piezen bitartez erai-kiak daude.

Tamaina handiko eskulturei dagokionean berriz, hauek eremu irekietan jarrita daude, kanpoan. Kasu hauetan, lan bakoitza kokatua izango den tokiaren arabera egokitzen saiatzen da, harmonia sortuz inguruarekiko. Aranburun jarrita dagoen erakusketan, hauen maketak iku daitezke, baita, jarrita dauden lekuetako argazkiak ere.

Bilduma honetan, tamaina txikiagoko eskulturak ere topa daitezke. Hauek Angel Ferrantaren eskultura infinituaren teoria dute oinarri, eta honen arabera kromatiko morfologia dute, eta metamorfosiaren printzipioa dute.

Ruiz de Aguinoren lanak nazioarteko foro askotan, Europako 25 museoetan, erakundeetan eta espazio publikoetan erakutsi dira. Gaur egun, nazioarteko artista geometriko entzutetsuenetakoa da.

Aguinoren margolanak hobeto

ulertzeko, bere hastapeneko garaierara, espresionismo abstraktura joan beharra dago. Garai haiek, bere motibazioa energia plastikoa bezala ulertutako osara zen.

1974tik lanean

Ruiz de Aguinok Zaragozako Arte Eskolan ikasi zuen. 1974. urtean jarri zituen ikusgai lehen aldiz bere lanak. Handik aurrera izan duen jardueraren profesionala Espainiako azken urteetako ibilbide plastiko erakargarrietakoa da.

Erakusketa asko egin ditu, eta publikoak eta kritikak oso ondo hartu dituzte; gainera, sari eta onarpen ugari jaso ditu. Egile honen artelanak koherenteak eta indartsuak dira, intuiziozko errebe-

lazio estetikoan, bizizko grinan eta diziplina formalean oinarritua.

1972tik 1977ra bitartean, espresionismo abstraktua landu zuen margolanetan. Ondoren, espazio plastikoaren kontzeptuari buruzko ikerketan personalagaratu zuen serie hauek: *Errealismo Kosmogoniko Majikoa* (1977-1980), *Pintura tetradimentsionala* (1980-1985) eta eskulturaren, *Espazioaren identitatea* eta *Materia estetiko*.

1980-1990 hamarkadan, hizkuntza geometrikoa erabili zuen zenbait serietan. Orduetik aurrera berriz, laborategi plastikoaren oinarri teoriko-praktikoak zabaldu ditu eskulturaren, grabazioetan, erliebeetan, pinturan, lan grafikoan eta beste euskarri batzuetan.



HITZAK harpidedunentzat **5 bono bikoitz** ditu
Alurr eta **Korrontzi**ren emanaldietarako

Alurr dantza taldearen
SUA ikuskizuna

Ekainak 12 • **Ostirala** • 22:30ean
Villabonako Gurea Zinemian

sarrerak eskuratzeko deitu gaurtik
ostirala 12:00ak arte: **943-65 56 95**



Korrontzi folk taldearen
musika kontzertua

Ekainak 13 • **Larunbata** • 22:30ean
Villabonako Olaederra Kiroldegian

emanaldi berezia!
Kontzertuko 5 abestekin
OINKARIK dantza egingo du!

TXOKOA HITZA

Garazi Egiguren da gimnastika erritmikoko Euskadiko txapelduna

Ibarra » Hirugarren aldiz jarraian lortu du garaipena; Onintza Odriozolak ere lehen postua eskuratu du kadete B mailan.



Belabieta Kluba pozik dago aurten lortutako emaitzekin. HITZA

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean gimnastika erritmikoko Euskadiko Txapelketa jokatu zuten Tolosako Usabal kiroldegian eta Ibarra Belabieta Gimnastika Erritmikoko Klubak oso emaitza onak lortu zituen. Izan ere, taldeko bi gimnastek lortu zuten lehen postua; Garazi Egiguren jubenil A mailako onena izan zen eta Onintza Odriozola, al-diz, kadete B mailakoa.

Garazi Egigurenen lehenengo urtea izan da maila honetan eta aurreko bi urtetan ere kadete A mailan txapeldun izatea lortu zuen. Egigurenek ezin izan zuen saria jaso eta bere ordezkariak

jaso zuten, bere ariketak bukatu bezain pronto Balmasedara abiatu baitzen, han gauean Alurr Dantza taldearekin *Sua* ikuskizunean parte hartu behar baitzuen.

Klubeko arduradunek esanda-

koaren arabera, aurtengo ariketak uztaia eta zinta ziren; «uztaiarekin kadetetan ere jokatu behar izaten dute, baina zintaren ariketa berria da maila honetan. Uztaiarekin 3. postua lortu zuen eta zintarekin 1,

horrela guztira lehen postua lortu zuen. 15 gimnastek parte hartu zuten maila honetan». Horiek horrela, Belabietakoak «oso pozik» dago aurten lortutako emaitzekin. Egigurenek lortutako garaipenaz, gainera Onintza Odriozolaren lana ere goraiatu dute klubeko kideek: «Lehen postua lortu du baita ere kadete B mailan».

Kadete A mailan 30 gimnastetik Izaro Esnaola uztaiarekin 15. eta mazekin 5. izan zen, «ariketa hau ere oso zaila izaten da». Miren Ezeiza berriz, uztaiarekin 22. eta mazekin 4. egin zuen.

Kadete B maila

Kadete B mailan 17 partaide izan ziren eta lehen esan bezala Onintza Odriozolak uztaiarekin 1. postua eta mazekin 2. lortu ondoren, guztira lehena izan zen.

Irati Maritxalarrek uztaiarekin 7. eta mazekin 15. egin zuen eta Ondit de Miguelek uztaiarekin 11. eta

mazekin 10. Kadete B mailako taldeko Izaro Esnaola, Miren Ezeiza, Onintza Odriozola, Irati Maritxalar eta Ondit de Miguel gimnastek ere hartu zuten parte eta podiumera igo ziren, 10 taldetarik 2. postua lortu baitzuten.

«Esan beharrik ez dago Belabieta Gimnastika Erritmikoko Klubak zein monitorea, Saioa Sorondo, Laura Angulo eta Oihana Zaldúa, oso pozik dauela aurtengo emaitzekin», argitu dute zentzu honekin. «Antzematen da urtean zehar lanean fin aritu direla, horren ondorioa baitira emaitza bikain hauen», gaineratu dute.

Ekainaren 19an ikasturte amaierako jaialdia

Emaitza on hauen ondotik ikasturtea amaitzeko garaia ere iritsi zaie gimnaseti eta horregatik jaialdia antolatatu dute ekainaren 19rako.

Belabieta kiroldegian izango dira 18:00etatik aurrera eta bertan 7 urtetik hasi eta 17 bitarteko gimnasta guztiak, 44 hain zuzen ere, egingo dituzte beren ariketak. «Nahi duen gutzia gonbidatuta dago ikuskizun eder honetaz gozatzera», argitu dute.

Baliarraingo II. Frontenis Txapelketako finalak, igandean

N.URBIZU

Datorren asteburuan Baliarraingo II. Frontenis Txapelketako finalak eta finalak jokatu dira. Etzi goizean mutilen txapelketan 12 lagun ariko dira (48 hasi ziren) eta ligaxkan ariko dira finalaurrekoa arratsaldean jokatu dutenak. Orain arte frontoian sortu den giro onari heldu asmoz, jendea bertaratzeko gonbitea luzatu dute antolatzaileek, «azken batean, hori da politena».

Nesken finalerdia

Nesken binakako finalerdia arratsaldean jokatu dute, 17:30ean hasita, eta mutilena 19:00etatik aurrera. Baina dagoeneko goizeko ligaxka 09:00etan hasiko da, 15:00ak inguru arte.

Finalak igandean goizean izango dira: 11:00etatik 13:00etara gutxi, gorabehera. Sari banaketa egingo dute ondoren, eta giroa ez da faltako. Joan den asteburuan sortutakoarekin «oso pozik» dago antolatzaileak.



Indaberea eta Jauregi, aurrekoan. N.U.

Bihar hasiko dira Gazte Festak 'Gazteok herria piztuz!' lelopean

Ibarra » Txupinazioa 19:30ean izango da eta ondoren, Mulamboren kalejira izango da herri sarreratik.

REBEKA CALVO

Bihar 19:30ean hasiko dira Ibarra Gazte Festak eta igandera arte luzatuko dira.

Gazteok herria piztuz! lelopean ekitaldi ugari antolatuta dituzte datozen hiru egunetarako; tartean Des-Kontrol, Desakato, Emon eta Unsainen kontzertuak, esate baterako.

Igandean, gainera, gazte bazkaria egingo dute Xeplan eta parte hartu nahi dutenek Atari tabernan erosi behar dituzte bazkarirako txartelak.

Festetan ikurrina balkoietan

Ibarra Gazte Asanbladako kideek, eraberean, festak irauten duten bitartean balkoietan ikurrina jartzeko deia egin dute.

«Ikurrina erasotzen ari dira! Nafarroan «ilegala» bilakatu dute atzerriko ikur bat bailitzan. Lapurdi, Xiberu eta Baxe Nafarroan, berriz, folkloreakin lotu nahian dabilta sentimenduak hustuz eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban Espainiako banderaren alboan jartzzen dute, mepenkotasuna erakutsiz...», argitu dute.

«Baina zazpi probintzietako



Gazte Asanbladak ikurrina jartzera animatu nahi ditu herritarrik. R.CALVO

gazteak Euskal Herriak batzen gaitu, ikurrinak ordezkatzeko gaitu, berau soilik maite dugu. Eta defendatuko dugu», gaineratu dute gazteek.

Aipatu gutzia dela eta, Ibarra Gazte Asanbladako kideek Gazte Festetan «Ibarra gutzioko balkoietan ikurrina jartzeko deialdi masiboa» egin dute.

» EGITARAUA

Hilak 12, bihar

■ **19:30.** Festen hasierako txupinazioa. Ondoren Mulambo perkusio taldearekin kalejira Ibarra sarreratik abiatuta.

■ **21:30.** Barrikotea Gaztetxean, bakoitzak bere afaria eraman behar du.

■ **23:00.** Kontzertuak plazan: Des-Kontrol eta Desakato.

Hilak 13, larunbata

■ **11:30.** Ume jokoak plazan.

■ **16:30.** Ume-ikuskizuna plazan.

■ **17:00.** Mus Txapelketa Sendi Ekintzan.

■ **18:00.** Tortillada eta txokolatada txosnan.

■ **23:00.** Kontzertua plazan: Emon eta Unsainen erromeria.

■ **24:00.** Atarrabiako (Nafarroa) Gas Taldearen ikuskizuna izango da.

Hilak 14, igandea

■ **12:00.** Kalejira herriko trikitalarien laguntzarekin.

■ **14:30.** Gazte bazkaria Xeplan. Bazkaldoan ere kalejira izango da.

■ **18:00.** Kea emanaldia plazan, Gazteok dantzara!

■ **19:00.** Loatze Musika Eskolaren emanaldia plazan.

■ **21:00.** Kontzertua Gaztetxean. Ze esatek!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hiru gazte Nafarroako Txapelketan

LEITZA • Nafarroako 14 urte bitarteko Bertsolari Txapelketa iragan larunbatean ospatu zen Larraintzarren. Guztira hogeitaz bertsolari gazte aritu ziren lau oina emanda eta gai orokorrari erantzunez. Horietatik 8 finalera pasatu ziren. Hemen, bikoteka ofizioko aritu ziren bina bertso osatuz eta

ondoren bakoitzari hitz bat emanda, nahi zuten doinu eta neurrian, bertso bana bota zuten. Leitzatik hiru ordezkari izan ziren Txapelketan: Martxel Intxausti, Beñat Altzelai eta Joanes Illarregi. Lehenbizikoa eta hirugarrena finalera pasatu ziren. Azken irabazlea Idioa Saez izan zen. HITZA

Laburrak

Oinatz Bengoetxeari gaur egingo diote ebakuntza

LEITZA • Bengoetxea VI.a bi hilabete inguru jokatu gabe geratu behar izango da ezker eskuaren laugarren hatzan daukan hausturagatik. Leitzako pilotariak lehenengo fanlanje alderatuan haustura dauka eta gaur goizean egingo diote ebakuntza Gasteizko La Esperanza Klinikari, Mikel Sanchez medikuaren eskutik. Oinatz Bengoetxeak iragan larunbatean hartu zuen min, Iruñean jokaturiko partidaren.

Euskara Taldearen aurkezpena hilaren 16an

LEITZA • Herriko Euskara Taldearen aurkezpena hilaren 16an, asteartean, egingo dute Aurrera Elkarteak, 19:00etan. Taldearen izena azaltzeaz gain, 2009ko euskararen erabileraren Kale Neurketaren emaitzak aurkeztuko dituzte bertan. Herriarrei bertara agertzeko deia ere egin diete.

Duela 30 urte hasitako lanarekin bat egiteko aukera ederra dute herritarrek

Leitza » Udaletxeko ganbaran herri ondarea aurkitzen da mantenuaren beharrez; herritarrek auzolanerako aukera dute.

ASIERIMAZ

Duela 30 urte, Leitzako etxeetan eta baserrietan erabiltzen ziren lanabes, altzari eta tresna desberdinen bilketa egin zuten hainbat herritarrek. Ondoren Foru Aldundiaren etxe batean, Goiko Errotan, Museo bat zabaldu zuten herriaren bildutako ondarearekin.

Urte batzuren ostean Goiko Errota «saldo edo ez dakit zer» egin zuten. Beste kokaleku bat bilatu nahian ibili ziren garai hartan, baina ez zuten lortu eta Museoako lanabes eta altzari guztiak udaletxeko ganbaran sartu zituzten, «nonbait sartzeagatik».



Udaletxeko ganbaran herri ondare aberatsa dago pilaturik. Auzolanen konpontzeko eta mantentzeko aukera dago. A.I.

'Ahaztutako altxorra'

Miren Fagoagak txikitzen ezagutu zuten Leitzako Museoa. Herriko ondarea urte luzez udaletxeko ganbaran galtzen ari zela ikusita, duela 6 urte, Gizarte Zerbitzueta-ko bi langilerekin batera, mantenu

lanetan hasi zen. Bi urtetan zehar egindako lanari esker, hobekien zeuden lanabesak udaletxean eta Gizarte Zerbitzueta jarri zituzten ikusgai. Hala eta guztiz ere «hori hor gelditu zen, ez zitzaion jarraitu lanetan».

Bien bitartean buruari bueltak ematen jarraitu zuten Miren Fagoagak: «Auzolan moduan zerbitu egitea bazegoela iruditu zitzaizdan».

Udalarekin harremanetan jarritzen «oso ongi hartu zuten ideia».

Konponketa eta mantenuakobaimena eskatzearekin batera, diru laguntzarik bideratuko ote zuten ere jakin nahi nuen. Honetarako ere prest agertu ziren».

«Askotan ekimen guztiak udaletxetik ateratzen behar dutela pentsatzen duzu; zuk zure etxean gelditu behar duzula. Baina herriko gauzak dira, Leitzako kultura eta historia erakusten diguten gauzak: baserrietan lana nola egiten zuten, nola bizi ziren... Hau dena Euskal Herriko kulturaren barnean sartzen da, baina aldi berean Leitzako kultura da: herriko pertsonaia, historia txikiak...».

Auzolanen bi arlotan

Ideietatik ekintzetara iragateko Fagoagak leitzarrei deialdi bat plazaratu zuten: «Auzolanen aritzeko, ikasteko, ikusteko, erakusteko... prest bazaudete deitu telefono zenbaki honetara: 665 24 42 69».

Herritarrez taldea osatu ondoren, bi lan esparrutan hasiko dira lanean: «Lehenik lanabesak moldatu eta mantentzen. Eta bigarrenik, herriko jende helduarekin hitz egiten: tresnen izenak bilduz, zertarako erabiltzen ziren...».

Hilberria

PAKO ZURUTUZA APALATEGI



Urak dakarrena, urak daroa.
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Zure ilobak



Haren aldeko hiletak GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN egingo da SAN GREGORIO parroki elizan.

ATAUN
2009ko
ekainaren 11

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri beilatokian egongo da 13:30a arte.

PAKO ZURUTUZA APALATEGI

Irriparra ezpainetan
distira begietan
horrela oroituko zaitugu
betiko gure bihotzetan.

Zure lehengusuak



ATAUN
2009ko
ekainaren 11

PAKO ZURUTUZA APALATEGI

-Goian bego-



Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.



ORDIZIA
2009ko
ekainaren 11

Bihotzez Maribel,
Ordiziako Berritzeguneko zure lankideak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Anoeta.** Korpus jaiak: ume parkea plazan 10:30etik 13:30era; 13:30ean ume bazkaria frontoian; 17:00etan Patxin eta Potxin pailazoak; 18:00etan txokolatate jatea; 18:30ean buruhandi eta erraldoiak; 21:00etan saiheski jatea frontoian; 23:00etan erromeria Izer eta Alabierrekin.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Lizardi konpainian eskopetari gisa atera nahi duten neskek deitu telefono hauetara: 600 244693 edo 686 405932.
■ **Tolosa.** Afari turkiarra eta derviche dantza bihar Fronton jatetxean. Txartelak salgai Saikin, Fronton eta Egoki tabernetan.

Hitzaldia

■ **Villabona.** Oier Araolazak *Zergatik egiten dut dantza tradizionala?* hitzaldia emango du Gurea aretoan 20:00etan, Dantza Astearren baitan.
■ **Tolosa.** *Integrazio zientifiko-humanista kirolean* Kultur Etxean 18:00etan, Oreki Fundazioak eta Asuncion Klinikak antolatuta.

Zinema

■ **Tolosa.** *La condesa descalza* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine forumean.

Irteerak

■ **Ibarra.** Ekainaren 20rako Baionara irteera antolatu du Bizi nahi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Atzo hasi ziren Anoetako Korpus jaiak; igandera bitarte haur, gazte nahiz helduei zuzenduriko ekitaldiak antolatuko dituzte; tartean, Lauroba eta Vendettaren kontzertua; gaur, umeen eguna da.

Kukuarekin batera lehertu da jaia

ERREDAKZIOA

Kukua heldu da azkenean Anoetara eta igandera arte ez du alde egiteko asmorik. Berak iragarri zituen atzo Korpus jaiak Gazte Asanbladak botatako txupinazoarekin batera. Eguraldi ona ere ekarri du kukuak Anoetara. Atzokoan danborrada izan zen ekitaldi nagusia eta gaurkoa umeen eguna izango da. Goizean, ume parkea atonduko dute plazan eta eguerdi partean, 13:30ean hain zuzen, ume bazkaria egingo dute frontoian.

Arratsaldea Patxin eta Potxin pailazoekin hasiko da; ondoren, txokolatate jatea izango da, buruhandi eta erraldoiekin batera.

Iluntzean, ezker abertzaleak antolatu ohi duen saiheski jatea izango da frontoian. Izer eta Alabierrek afalostea alaituko dute euren erromeriarekin.

Bihar ere goiz goizetik hasiko dira asteburuko atariko ekitaldiak.

Hala, 11:00etatik aurrera, jubilatuen arteko toka txapelketa izango da plazan.

Arratsaldean, berriz, 16:30ean, buruhandi eta erraldoien kalejira izango da. 18:00etan ume eta helduen play-backa izango da plazan.

Gauean pala partidak izango dira, neska-mutilen artean (Javier Zubeldia-Nagore Arozena/Itsaso Urkizu-Aitor Landa). Hau 22:00etan izango da eta ondoren, afizionatuen pilota partida izango da ikusgai Kuku eta Su-Berri pilota elkarteek antolatuta. Hain zuzen, Renobales-Leunda, Mendizabal-Irurreta pilotariak ariko dira nor baino nor.

Ostiralari musikarekin emango diote amaiera. Hain zuzen Vendetta eta Lauroba musika taldeen doinuak izango dira entzungai plazan bertan, 24:00etan hasita. Asteburua ere ekitaldiz jositako helduko da anoetarrentzat. Jai giroa ziurtaturik dago.



Udaltzetik bota zuten txupinazoa; ondoren, danborrada izan zen. I. GARCIA

A Agurrak




Urte askoan!

Unax Arozena Letamendia (Orio).

Gaur 3 urte. Muxu handi bat familiaren eta aiton-amonen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
IES Hernani BHI
A. Iurrigo - K. Labaka

ELEKTRIZITATEA	MEKANIKA
<ul style="list-style-type: none"> • Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila) • Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila) 	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazioa (Erdi Maila) • Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 Faxa: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 Faxa: 943 330550
institutua@hernanibhi.com • www.hernanibhi.com • 20120 HERNANI

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 12ra

